



Osakidetza



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

GRADU AMAIERAKO LANA

2016/17

BERRI TXARRAK JASO DITUZTEN PAZIENTEEN MANEIU EMOZIONALA. BERRIKUSKETA BIBLIOGRAFIKOA.



EGILEA: Nerea Ibarretxe Diego

ZUZENDARIA: Shaila Herrero Diaz

HITZ KOPURUA: 6279

Gasteizko Erizaintza Unibertsitate Eskolan,
2017ko maiatzaren 10ean.

Esker onak Shailari, lan hau gidatu eta posiblea egiteagatik.

*Eskerrak azken lau urteak nirekin igaro dituzten lagunei eta
batez ere Oian eta Leireri, nire ondoan beti egoteagatik.*

*Azkenik, mila esker nire familiari, guraso eta nebari bereziki,
urte hauetan zehar eredu bezala jarduteagatik.*

Aurkibidea

Sarrera.....	1
Marko teorikoa eta justifikazioa.....	2
Helburua.....	5
Metodologia.....	6
• Bilaketa estrategia.....	6
• Artikuluaren aukeraketa.....	6
• Zuhaitz kategoriala.....	7
• Barneratze eta kanporatze irizpideak.....	7
Emaitzak eta eztabaida.....	8
• Berria emateko aurretiazko prestaketa.....	8
○ Mezua jasotzeko pazienteen prestaketa.....	8
○ Mezua bidaltzeko osasun profesionalen prestaketa.....	9
• Berri txarren komunikazioa.....	10
○ Ingurunea.....	10
○ Protokoloak.....	11
○ Informatze prozesuaren zailtasunak.....	12
○ Erizainen rola.....	13
• Emozioen maneia.....	14
○ Pazienteak.....	14
○ Profesionalak.....	15
Ondorioak.....	16
Mugak.....	19
Bibliografia.....	20
Eranskinak.....	23
• 1. Eranskina: Kontzeptu taula.....	23
• 2. Eranskina: Bilaketa prozesuari buruzko taula.....	24
• 3. Eranskina: Ikerketa kuantitatiboaren irakurketa kritikoa.....	29
• 4. Eranskina: Fluxu diagrama.....	35
• 5. Eranskina: Emaitzen taula.....	36
• 6. Eranskina: Katetoria zuhaitza.....	46
• 7. Eranskina: SPIKES protokoloa.....	47
• 8. Eranskina: ABCDE protokoloa.....	48
• 9. Eranskina: Almanzaren 10 orientazio puntuak.....	49

Sarrera:

Marko teorikoa eta justifikazioa: Berri txarren komunikazioa osasun profesional guztiek noizbait biziko duten esperientzia bat da. Halako informazioak pazientearengan inpaktu emozional handia sortzen du. Ondorioz gaixoarengan sortzen diren jarrera eta emozioak oso kontuan izan behar ditugu. Askotan, transmisioan, informazioaren integrazioa pobrea izaten da, sortzen diren emozio negatibo hauek atentzioan eragiten baitute. Horregatik, beharrezkoa da komunikazio eraginkor bat aurrera eramatea. Hala ere, prozesu hau zaila da, faktore asko kontuan izan behar ditugulako. Profesionalen informatzeko moduak pazientearen emozioetan eta jasaten duen inpaktuan eragin dezake. Ondorioz, garrantzitsua da erizainek osasun taldearen barnean nola jokatu behar duten jakitea.

Helburua: Literaturaren errebisio honek, erizaintzak pazientearen maneiu emozionalean berri txar bat jaso ondoren daukan papera aztertzeko asmoa dauka, zein esku hartze edo komunikazio estilo aurrera eraman behar diren ikusiz.

Metodologia: 2006. urtetik aurrerako artikulua aukeratu dira. Ingelesean eta gaztelaraz idatzitako lanak barneratu dira. Bilaketa bibliografikoa MEDLINE, PSYCHINFO, COCHRANE PLUS, CINHALL, CUIDEN, NICE eta LILACS datu baseetan egin da. Gainera, artikuluen bibliografiak eta praktika klinikoaren gidak ere aztertu dira. Lan honen emaitzak burutzeko hamasei artikulua aurkitu dira.

Emaitzak eta eztabaida: Informazio transmisiorako, pazientearen prestaketa aurrera eraman behar da, momentu horretan bere beharrak zeintzuk diren berrikusiz. Honek aldi berean profesionali prestatzen lagunduko die, gaixoak informazioa nola ematea nahi duen jakingo dutelako. Aurretik, profesionalak pazientearen datu guztiak errepasatu eta haien sentimenduak aztertuko dituzte. Berri txarrak ematerakoan ingurunea kontrolatuko da eta informazioa transmititzeko protokoloak erabiliko dira, hauek emozioak kudeatzeko gidekin konbinatuz. Erizainek atal honetan garrantzia handia daukate, izan ere, sostengu rola betetzen dute. Gainera hauek, medikuaren informazioa argitu eta paziente eta familiaren abokatu bezala jarduten dute. Garrantzitsua da ere profesionalak berria eman ondoren haien emozioak aztertzea.

Ondorioak: Horren ondorioz, profesional guztiek era bateratu eta koordinatu batean lan egin behar dute, pazientean eragin onak lortzeko. Horrela, gaixoaren egoera emozionalean hainbat emaitza positibo lortu daitezke, sentitu ditzakeen emozio negatiboak txikituz. Erizainak osasun talde honetan rol oso garrantzitsua daukala ikusi egin da, hala ere, oraindik bere funtzioa ez dago oso definitua. Langile hauek informazio transmisioan sentitzen duten urduritasuna heziketa faltagatik eta egoera hauetan nola jokatzeko ez dakitelako izan daiteke. Izan ere, berri txarren transmisioari eta honetan parte hartzen duten profesional guztien funtzioei buruz gehiago ikertzeko premia dago.

Marko teorikoa eta justifikazioa

Edozein berriren komunikazioa prozesu bat da, non, erlazio terapeutiko baten bitartez, pazientearen eta profesionalen artean informazio trukaketa jarraitua dagoen. Prozesu honetan, pazientearengan aldaketa bai fisiko bai pentsaera aldaketak eman daitezke. Beraz, profesionalen lana da, betiere komunikazio irekia mantentzea, horrela pazientearen aldaketa mediko eta psikosozialei erantzun ahal izateko.¹

Berri txar bat, pertsona batek orainaldian eta etorkizunean jarritako itxaropenetan alterazio negatiboren bat sortzen duen informazio oro da. Hauei ematen zaien erantzun emozional posible guztien artean, haserrea, beldurra/kezka, ezjakintasuna, albistea ez sinestea, negazioa, shock egoera, antsietatea eta onarmena daude.¹⁻²

Antsietatea potentzialki negatiboak diren eta ezjakintasuna sortzen duten egoerek sortzen dute. Pertsona gehienek, erantzun emozional hau izaten dute bizitako esperientzia bat potentzialki mehatxagarria denean.³ Eysenck et al-en artikuluan, antsietatea pertsona baten helburu espezifiko bat arriskuan jartzen duen egoera, objektu edo interpretazioa deuseztatzeko ezintasuna sortzen duen egoera bezala definitzen da.⁴ Beraz, berri txarrek gure etorkizunerako itxaropenetan sortzen dituzten alterazioen ondorioz, antsietatea sor dezakete.

Sortzen diren sentsazio hauek hainbat efektu izan ditzakete. Berri txar bat jasotzerakoan agertzen den antsietatea, pazienteek haien gaixotasunari edo prozesuari buruz ematen zaien informazioa partzialki soilik gogoraraztea eragin dezake. Izan ere, informazioa ematen zaien bitartean, gaixoek erantzun emozional hauek maneiatu behar dituzte. Van Osch et al-en artikuluan, aipatu egiten da pazienteen informazioaren integratzea orokorrean pobrea dela eta emandako informazioaren %40-80a berehala ahaztu egiten dela.²

Antsietateak ere, memorian epe luzerako efektuak sortzen dituela aurkitu da. Sansom-Daly et al-en artikuluan estres nahaste akutua zeukaten paziente onkologikoen, minbiziarekin erlazonatutako oroimen negatibo gehiago sortzen zizutela aipatu egiten da. Memoria hauen sorkuntza, diagnostikoa eta sei hilabetetara, paziente hauetan inpotentzia eta etsipen sentimendu handiagoak sortzen zituela ikusi zen. Beraz, gaixotasunaren ondorioz estres eta antsietate gehiago zeukaten pazienteek, minbiziarekin erlazonatutako oroitzapen gehiago sortzen zuten eta, ondorioz, haien osasun eta etorkizunari dagokionez beldur gehiago sentitzen zuten.⁵

Bestalde, berri txarrak jasotzerakoan eman daitekeen beste erantzun bat **kezka** da. Kezkak, antsietatearen antzerako efektu bat sortu dezake, informazioaren hartzailaren atentzian eta ondorioz, memorian eraginez eta hau kaltetuz. Eysenck et al-ek haien ikerketan aipatu egiten dute kezkak egoera prozesatzeko dauzkagun atentzio baliabideak mugatzen dituela.⁴ Ideia hau, *attentional narrowing hypothesis* (atentzioaren estutze hipotesia) deitutakoarekin bat egiten du. Honek, egoera batek pertsona batean sortutako asaldura emozional altuak arreta behar duela

dio. Ondorioz, informazio periferikoa biltzeko baliabideak mugatuta egongo dira. Horrela, gehien gogoratuko dutena asaldura hau sortu duenari lotutako informazioa izango da, hau da, informazioaren muina (adibidez, diagnostiko bat jasotzerakoan, gehiengoek hau hobeto gogoratuko dute, gaixotasunari edo tratamenduari buruzko ondoren ematen zaien informazio gehigarria baino).⁵

Beste alde batetik, kezka **errumiazio** erako pentsaerekin oso lotua dago. Horrela, biak era ez produktibo batean norberaren ardurei buruz pentsatzea eta pentsaera kate hauek gelditzeko zailtasunak izatea ezaugarri bezala daukaten prozesu kognitiboak dira.⁶⁻⁷ Era berean, errumiazio erako pentsaera hauek atentzio defizit-arekin lotuta daude. Hsu et al-en artikuluan aipatu egiten dute, atentzio ezak errumiazio erako pentsaera gehiago eragiten dituela eta, aldi berean, hauek gaixotasunak dakartzan sintoma klinikoak handitzen dituela.⁸

Pertsona batean, berri txar bat jasotzerakoan erantzun bata edo bestea agertzea eragiten duten faktoreen artean pazientearen bizi esperientzia, pertsonalitatea, uste espirituala, ikuspegi filosofikoa, sostengu soziala eta sendotasun emozionala daude. Hainbat artikuluk, antsietatearen agerpenean eragiten duten faktoreei buruz hitz egiten dute. Honen adibide bat Maguiren artikulua da, non ikusi egin den berria jaso aurretik, haien gaixotasun prozesuari buruzko ardura gehien dituzten pazienteek, ondoren antsietate edo depresio nahasteren bat garatzeko aukera handiagoak dituzten.⁹

Antsietate osasuntsuaren eredu kognitiboak (cognitive model of health anxiety) dionez, estutasun psikologikoa, inespezifikoa diren gaixotasunaren sintomen interpretazio okerra egiteko tendentzia daukaten pazienteengan ematen da.¹⁰ Hayter et al-en artikuluan aipatu egiten da, prozesu hau, antsietate handiko gaixoengan ematen dela. Ondorioz, nortasunez urduriak diren pazienteek aukera gehiago izango dute prozesu hau jasateko. Pazienteek haien sintomen aurretiazko interpretazio oker hauek egiteak antsietatea eta hainbat portaera edo nahaste psikologiko, afektibo edo emozional garatzea eragin dezake.¹⁰ Beste artikulua batzuk ere, puntu hau aipatzen dute. Mathews et al-en artikuluan bular minbiziaren diagnostikoaren ondorioz pazienteetan ager daitezkeen kezka jarreraren iragarpena aztertzen da. Ikerkuntza honetan, minbiziaren diagnostiko larriak ez zuela kezka gehiago sortu pazienteengan aurkitu zuten. Horren ordean, minbizidun emakumeei ardura gehien sortu ziena, diagnostikoa emango zieten momentuan pentsatzea izan zen.¹¹

Antsietate eta estres erantzunak, mehatxu potentzial baten aurrean sortzen dira. Hala ere, gutxiengo batzuk, hau sentitzen dute mehatxu hori txikia izanda ere. Honen arrazoia, ezjakintasun sentimenduari tolerantzia gutxi izatea da.³ Hau, Mathews et al-en artikuluan ematen den adibidearekin lotu dezakegu, izan ere, berria jaso aurretik, hau emango zitzaienten momentuan behin eta berriz pentsatzeak, pazienteei kezka sortu ziela aipatzen du.¹¹ Errumiazio erako pentsamendu horiek haien egoerari buruzko ezjakintasun sentimenduarekin lotuta, antsietate erantzuna handiagotu dezakeela pentsatu dezakegu.

Beraz, faktore hauek guztiak pertsona bakoitzak desberdin erantzutea eta ondorioz **aurre egite estrategia** desberdinak garatzea eragingo du. Profesionalek hau kontuan izatea pazientearekin hitz egiterako orduan oso garrantzitsua da, izan ere, berri txarraren komunikazioa nola maneiatzen den arabera, pazientearen erantzuna bata edo bestea izatea eragingo du. Horregatik garrantzitsua da osasun langileek informazioaren transmisiorako gaixo horri egokitutako maneiu emozionala eta honi moldatzen zaion komunikazioa aurrera eramatea.

BERRI TXARRA EMATEAREN PROZESUA

Esan bezala, berri txarra nola ematen den eta honen aurrean profesionalek daukaten jarrerak ere, asko eragiten du. Hainbat ikerketen arabera, berri txarra emateko teknika edo momentu ezegokia aukeratu ezker, pazientearengan eragin oso negatiboa sor dezake, lehen aipatutako sentimendu negatiboak sortuz edo handituz.⁹⁻¹²⁻¹³ Gainera, informazioa emateko errutina estandarizatu bat jarraitzen duten medikuen pazienteen kasuan, kezkatuak gelditzeko, esandakoa ez onartzeko eta informazioa ezegokia dela hautemateko aukerak altuagoak dira. Honek, gaixoaren aldetik, egoeraren ebaluazio negatiboaren, antsietatearen eta depresioaren agerpenaren arriskua handitzen du.⁹ Bestalde, denboran mantentzen den nahastea, erresumina edo estresa, bai gaixoa eta baita honen familia kideengan sor dezake ere.¹⁴

Beraz, berri txarrak era egoki batean eman behar dira pazienteak eta familiak profesionalekin etorkizunean izango dituzten erlazioengan efektu kaltegarririk ez sortzeko. Izan ere, egoera era ezegoki batean maneiatuz gero pazientearen osasunarengan oso erantzun negatiboak sortu daitezke. Beste alde batetik, ordea, pazientearen ikuspuntua onartzeak edo enpatia adierazteak, honen ongizate psikologikoa hobetu dezake eta pairatu ditzakeen beldur edo antsietatea bezalako emozio negatiboak txikitu. Gainera, modu honetan mina bezalako sintoma fisikoak txikitu daitezkeela ere egiaztatzen da.¹⁵

Osasun profesionalek, ondorioz, oso kontuan izan behar dituzte aldagai hauek, ekintzak era egoki batean bideratzeko, ikusia baita, profesionalen esku hartzeak asko eragiten duela pazientearen egoera psikologikoan. Takayama et al-en artikuluan aipatzen denez, pazientearen hobekuntza sentsazioa handiagoa da, osasun profesionalek haien antsietatea neurri handian arintzea lortzen dutenean.¹⁶ Horrela, erizainek, berebizikoak suertatzen dira, informazioa ematearen eta hau barneratzearen prozesuan, askotan pazientearekin denbora handia igarotzen baitute.

Aurretiaz egindako literatura asko, berri txarrak ematerakoan medikuaren figuran zentratu egin da. Hala ere, azken urteotan, berri txarren komunikazioa prozesu bat bezala ulertzen hasia da eta ez momentu puntual bat bezala. Horrela, beste hainbat profesionalen parte hartzea ere aztertzen hasia da. Hauen artean, erizainak daude, zein pazientearentzat sostengu irudi bat bezala definitzen diren. Langile hauen rola balio handikoa eta erlazio terapeutikoaren funtsezko osagarri bezala definitu da. Ikerketek erizain-paziente erlazioa denborarekin garatzen doala

diote, non gaixoarekin lotura bat sortzen den.¹⁷ Modu honetan, Mishelmovich et al-ek pazientearen behar psikologikoak ulertu eta honentzat eta familiarentzat medikuaren informazioaren interprete bezala jokatzeko dutela diote.¹³ Beraz sortzen den erlazio hau, erizainei pazientearen arabera eta honen abokatu bezala jardutea ahalbideratzen die.¹⁷ Warnock et al-ek haien artikuluan erizainek egoera hauetan aurrera eramaten dituzten funtzioak definitzen ditu: informazio beharrak identifikatu, gaizkiulertuak antzeman eta argitu, informazio mediku konplexua azaldu eta paziente eta familia kideen erreakzio emozionalak lantzen lagundu.¹⁴ Ondorioz, begi-bistakoa da erizainek rol oso garrantzitsua daukatela pazienteen emozioen maneian, berri txar bat jasotzen dutenean. Izan ere, haiekin denbora gehien iragotzen duten osasun profesionaletako batzuk dira. Erizainen presentzia konstantea da eta askotan, hau izango da egoera kritikoetan paziente eta familiarrekin denbora igaroko duena, hauei berri txarrak interpretatzen laguntzen eta haien erantzun emozionalak maneiatzen lagunduko diena.¹⁸

Hala ere, oraindik profesionalei zaila egiten zaie berri txarrak ematea edo egoera hauen aurrean egokiro jokatzea¹⁹. Izan ere, literaturak dionenez, erizaintzan komunikazio egoki baterako entrenamendu falta dagoela ikusi egin da eta honi buruzko jakintzak esperientziatik eratorriak direla.¹³⁻¹⁴⁻²⁰⁻²¹ Wittenberg et al-en artikuluan aipatu egiten da ikerketa honetan parte hartu zuten zainketa intentsiboetako erizainek, aurrera eramaten zituzten bizitza amaierako zainketak, haien eta beste erizainen lanetik eratorritako esperientzia txar eta onetatik ikasiak zirela. Bertan ere, erizainek pazienteekin zituzten mota honetako elkarrizketak, orekariaren sokan (“cuerda floja”) ibiltzea bezala definitzen zuten, izan ere, askotan ez zekiten gaixoa gai hauei buruz hitz egiteko prest bazegoen ala ez.²⁰

Helburua

Literaturaren errebisio honek, erizaintzak pazientearen maneio emozionalean berri txar baten ondoren daukan papera aztertzeko asmoa dauka, aipatutako erantzunak eta hauetan eragiten dituzten faktoreak lantzeko, zein esku hartze edo komunikazio estilo aurrera eraman behar diren ikusiz.

Metodologia

Bilaketa estrategia

Bilaketa bibliografikoa hainbat datu baseetan aurrera eraman da, *My Athens* eta *Ovid Online* plataforma birtualak erabiliz. Hurrengo datu-baseak aztertu dira: MEDLINE, PSYCHINFO, COCHRANE PLUS, CINHALL, CUIDEN, NICE eta LILACS.

Hasteko, ezarritako helburutik ideia nagusiak sailkatu dira. Ondoren, ideia hauen sinonimoak bilatu dira eta hauetatik, datu base bakoitzerako hitz klabeak aurkitu dira (1. Eranskina). Hitz klabe horiek konbinatuz bilaketa ekuazio desberdinak sortu dira. Hauetako bilaketa batzuetan filtroen erabilera egin da emaitzen espezifikotasuna handitzeko (2. Eranskina).

Bilaketa egiterako orduan erabilitako hitzak honako hauek dira: alde batetik, berri txarrei dagokionez, “*diagnosis/diagnóstico*”, “*critical illness*”, “*malas noticias*” eta “*bad news*” (azken hau hitz klabe –palabra clave- bezala) erabili dira. Erantzun emozionalari dagokionez “*anxiety/anxiety management*”, “*coping behaviour*”, “*psychological adaptation*”, “*afrentamiento*”, “*emotions/emociones*” eta “*estrés*” erabili dira. Erizaintzarekin erlazionatzeko “*nursing/enfermería*”, “*nurse-patient relationship*”, “*atención de enfermería*”, “*caregiver*” eta “*students, nursing, graduate*” erabili dira. Azkenik, esku hartzeari dagokionez, “*communication*” “*therapeutic processes*” eta “*truth disclosure*” erabili dira.

Datu baseetan bilaketa egiteaz gain, aukeratutako artikuluen bibliografia erreparatu da bertatik baliagarriak diren artikulua aurkituz. Gainera, artikulua eskuratzeko orduan, Science direct bezalako plataformek iradokitutako eta gaiarekin erlazionatutako artikuluen baliagarritasuna aztertu da, era honetan baliagarriak diren testuak aurkituz. Praktika klinikoaren gidak ere erreparatu egin dira.

Artikuluen aukeraketa

Bilaketa ekuazioa jarri eta ondoren, artikulua guztien artean aukeraketa prozesu bat egin da gaiarekin bat datozenak hautatuz. Ondoren, hauek Full text-ean eskuratu egin dira. Osorik aurkitutako lanak aztertu dira, barneratze/kanporatze irizpideen arabera ikerketak aukeratu edo baztertuz. Gero, hautatutakoen kalitatea, informazioaren aberastasuna eta helburuari erantzuteko datuen arabera azterketa bat burutu da. Artikulu kuantitatiboaren kalitate metodologikoa aztertzeko azterketa kritikorako gida erabili da (3. Eranskina). Ez da erabilitako lan kualitatiboaren kalitate metodologikoa ebaluatu inolako giden bitartez, hau egiteko baliabideen faltaren ondorioz. Horrela, emaitzak osatzeko hamasei lan lortu dira (4. Eranskina). Hauetatik sei, artikulua kualitatiboak, bost kuantitatiboak, hiru errebisio bibliografikoak eta bi gida kliniko dira (5. Eranskina).

Zuhaitz kategoriala

Aukeratutako artikulu guztiak aztertu ostean, gaien arabera lana hiru bloke nagusitan sailkatu da. Lehengo atalean berria emateko aurretiazko prestaketari buruzko informazioa biltzen da. Hau, aldi berean, beste bi bloke nagusitan banatzen da: mezua jasotzeko pazienteen prestaketa eta mezua bidaltzeko profesionalen prestaketa. Bigarren atalean berri txarren komunikazioari buruzko informazioa daukagu. Bertan, inguruneari buruzko informazioa ematen da. Gainera, hau aurrera eramateko hainbat protokolo deskribatzen dira. Azkenik, prozedura honetan aurkitu ditzakegun zailtasunak eta erizainaren rolari buruz ere informazioa ematen da. Azken blokea maneiuko emozionalari dagokio. Bi atal nagusitan bereizi da: profesionalen eta pazienteen maneiuko emozionala. Bertan, alde batetik, pazienteen emozioak lantzeko gomendioei buruz eta bestetik, profesionalen jokaera eta hauek kontrolatzeko estrategiei buruz hitz egiten da (6. Eranskina).

BARNERATZE ETA KANPORATZE IRIZPIDEAK

Barneratze irizpideak

- Argitalpen data: 2016. urtetik atzera abiatuz, 10 urteko epearen barruan dauden lanak aztertu dira. Denbora tarte hau aukeratu da, informazioa eguneratua izateko asmoz.
- Hizkuntza: Artikuluak gazteleraz eta ingelesez bilatu egin dira, gainerako hizkuntzen ez ulertzeagatik.
- Geografia: edozein herrialde eta kulturaren egindako ikerketak aukeratu dira, informazio aniztasuna izateko asmoarekin. Hala ere, artikuluen jatorria kontuan izan da ondorioak aztertzeko.
- Lan motak: Aldizkari elektronikoetan, laburpen eta testu osoa baliagarri daukaten artikuluetan, errebisio sistematikoetan eta gida klinikoetan informazioa bilatu da.
- Artikuluen gaiak: aukeratutako artikuluen gai nagusia aurre egiteko estrategiak eta komunikazioa; emozioen maneiua eta erizaintza eta berri txarrak eta erizain komunikazioa izan dira. Erizaintzan zentratuak zeuden artikuluek erabili ditugu, hala ere, beste osasun profesionalak aipatzen dituzten artikuluek kontuan hartu dira erizainak aintzat hartzen bazituzten.
- Parte hartzaileak:
 - o Pertsona helduak, heldutasuna 18 urtetik aurrera hartu delarik kontuan izanda.
 - o Bestelako disfuntzio edo nahaste mentalik gabeko pazienteen erantzunak aztertu dira.
 - o Haien txar bat edo inpaktu handikoa kontsideratzen duten berria jasotako paziente eta familia-kideak kontuan hartzen dituzten artikuluek aztertu dira. Berri txarra eman zaien momentua eta bai aurreko eta ondorengo egoerak aztertzen dituzten artikuluek kontuan hartu dira. Horrelako berriak ematen diren

esparruan lan egiten duten erizainak barneratzen dituzten artikuluak ere irakurri dira.

Bazterte irizpideak

- Barneratze irizpideak betetzen ez dituzten artikulu guztiak baztertu dira.
- Ezagutzen ez diren hizkuntzetan eta itzulpenik eskuragarri ez dituzten artikuluak.
- Gutunak, editorialak, literatura grisa, doktoretza tesiak, konferentzia aktak, etb. baztertuko dira.
- Ume eta nerabeak eta haien gurasoak parte hartzaile bezala dituzten artikuluak baztertu dira.

Emaitzak eta eztabaida

Berri txarrek, pertsona baten itxaropenetan eragin dezakete hauetan alterazio emozional negatiboak sortuz. Honen ondorioz, hauek ematea eta jasotzea lan zaila suertatu daiteke bai profesional eta pazientearentzat.

Egoera hauei nola aurre egiten den jakiteko asmoz egin den bilaketa bibliografiko honen emaitzak hiru ataletan sailkatzea erabaki da: Berria emateko aurretiazko prestaketa, berri txarren komunikazioa eta emozioen maneia.

BERRIA EMATEKO AURRETIAZKO PRESTAKETA

Prozesu honetan, informazio emate momentuaren aurretik prestakuntza fase bat aurrera eramane behar dela artikulu askotan aipatu egiten da.¹³⁻²²⁻²³⁻²⁴ Prestakuntza fase hau bai profesionalak eta bai paziente eta familiarrek aurrera eramane behar dute.

Mezua jasotzeko pazienteen prestaketa

Hasteko **pazientea** berria jasotzeko prestatu egin behar da, honek sortuko duen inpaktu emozionala txikiarazten saiatzeko.¹³⁻²²⁻²⁴

Informatze prozesua martxan jarri aurretik, gaixoak dituzten beharrak berrikustea garrantzitsua da.²¹⁻²⁵⁻²⁶ Berri txarren komunikazioaren momentuan, pazienteek profesionalaren aldetik zein

motatako jokaera izatea nahi duten jakitea garrantzia handikoa da, informazio hau langileen ekintzak gidatuko baititu:

Pazienteek, hasteko, profesionalak haien diagnostikoa era argi batean komunikatzea nahiago dute. Horrela, norberaren patologiarene izena entzuteak eta hau ulertzeak antsietate mailak txikitzen eta egoerari prestatzen hastera laguntzen die.²⁶⁻²⁷ Gaixoek berri txar bat jasotzerakoan igorlea zuzena izatea, informazio osoa ematea eta hau zintzoa/egiazkoa izatea eskertzen dute. Izan ere, hau egin ezean ezjakintasuna sortzen da eta honek pazienteei sufrimendua suposatzen diela ikusi egin da.¹³⁻²³⁻²⁷⁻²⁸ Gainera, momentu honetan profesionalak alderdi positiboa eskaintzea ere nahiago dute.²³

Azkenik, familia pazienteentzat egoera hauetan pieza oso garrantzitsua dela esan daiteke. Hauek sostengu emozionalaren iturri handi bat dira eta, beraz, askotan beharrezkoa suertatzen zaie familia kideak ondoan izatea haien prozesuan zehar.¹⁸ Ondorioz, hauek ere kontuan izan behar ditugu haien egoera zein den aztertuz.²⁸⁻²⁹ Berri txarra ematerako momentuan, familia kideak pazientearekin egotearen garrantzia aipatu egiten du Mendes et al-en artikulua.²⁸⁻²⁹ Horrela, ia paziente guztiek familia kide bat informazio jasotze momentuan egotea nahiago dute.²⁹

Mezua bidaltzeko osasun profesionalen prestaketa

Aipatutako pazienteen nahi hauek betetzeko **osasun profesional taldearen** aldetik ere prestakuntza bat eman behar da.

Profesionalen arteko koordinazio eta elkarlanari dagokionez, González-en artikuluan berri txarrak ematearen ekintza bakarrik edo beste langileekin batera egin daitekeela dioen arren, komenigarria da hauen artean koordinazioa egotea. Izan ere, honen falta badago gaixoarentzat kaltegarria izan daiteke.²⁴ Beraz, pazientearekin kontaktua izango duten guztien arteko aurretiazko adostasuna eta planifikazioa egotea beharrezkoa da, pazientearen nahiak kontuan hartuz.

Elkarrizketa prestatzeko, profesionalak inpaktu emozional handiko datuak jaso dituen pazienteekin lan egin behar dute. Momentu honetan, taldekideak paziente eta familiaren galderak erantzuteko prest egotea garrantzitsua da.²³⁻²⁸ Izan ere, berri txarrak jasotzen dituzten ia gaixo guztiek informazio behar handiak dituzte, batez ere gazteak badira. Horrela, hasteko, honen historiala, oraingo egoera, etab. erreparatzea gomendatzen da.²⁹ Ondoren, bere jakintza maila aurretiaz ebaluatu behar da.¹³⁻²⁴⁻²⁸⁻²⁹ Hau elkarrizketa baten bidez egingo da. Elkarrizketa horretan pazienteak profesionalari bere egoerari buruz dakiena azalduko dio, azkenaren galderen laguntzarekin.²⁹ Hala ere, ebaluazio hau askotan ez da aurrera eramaten. Honek,

hainbat gaizki ulertze sortu ditzake, frogatu denez, osasun langileek askotan informazio beharrak ongi identifikatzen ez baitituzte, hauek gutxietsiz.³⁰ Adibidez, pronostikoari buruzko gaixoen galdera faltak, informaziorik nahi ez izatea bezala ulertzen da. Modu honetan, gaixo eta zaintzaileen artean hainbat eremutan informazio falta eta ezjakintasuna sortu dela ikusi egin da.³⁰⁻³¹

Pazienteek ezjakintasun hau honako arrazoiei atxikitzen diete: profesionalak esandakoa ez ulertzea, berria oso azkar jaso izana, igorleak informatu nahi ez izatea eta galderak egin ondoren igorleak erantzuten ez jakitea.³⁰ Garrantzitsua da berria emango duen profesionalak faktore hauek baloratzen jakitea eta gaixoak zer nahi eta behar duen zehatz-mehatz ezagutzea, haien informatze prozesua aurrera eramateko, azalpenak zabaltzeko, etab. Balorazio hau prozesu osoan zehar egin beharko litzateke.²⁵ Beraz, informazioa eman ondoren ere feed-back-a jasotzea garrantzitsua da, aipatutako arazo hauek ekiditeko asmoz.

Horrez gain, informazioaren transmisioa ezin da edonola aurrera eraman. Lehen aipatu bezala, pazienteek momentu hauetan profesionalengandik jokaera espezifiko batzuk espero dituzte (zintzotasuna, argiak izatea, diagnostikoari izena ematea ...)¹³⁻²³⁻²⁷⁻²⁸. Horrela, informazioa eufemismorik gabe, itxaropenik kendu gabe ... eman behar da.²⁸ Honek, erabiltzen diren hitzekin kontu handia izan behar dela suposatzen du.²⁷ Ondorioz, ezaugarri hauek ahalik eta hoberen betetzeko eman ahal diren egoerak, galdera posibleak, elkarrizketa gaiak, etab. aldeztatik aurretik prestatzea komenigarria da.²²

Bestalde, berri txarra emango duen profesionalaren jokabidea kontrolatzea ere garrantzitsua da. Honek, paziente eta familiarrekin begi kontaktua mantendu eta ukimena era egokian erabili behar du informazioaren transmisio momentuan. Enpatia eta errespetua erakutsi behar du, hala nola, honen kezka era lasai eta adeitsu batean entzun. Prozesu honetan parte hartuko duten osasun profesionalak antsietatea sentitu dezaketen arren, hau pazienteei ez erakusten saiatu behar dira.²⁸

BERRI TXARREN KOMUNIKAZIOA

Ingurunea

Behin aurretiazko prestakuntza eginda, informazioa komunikatu behar da. Hasteko, paziente bera eta bere ingurunea prestatu behar da berri txarrei edo honekin erlacionatutakoari buruz hitz egiteko.¹³⁻²⁴ Inguruneari dagokionez, hau gero eta kontrolatuagoa izan, orduan eta hobeagoa izango da bai paziente eta profesionalentzat. Posiblea izanez gero, pribatutasuna eta isiltasuna gordetzen duen giro bat aukeratuko da. Beste alde batetik, berria emateko aukeratzen den lekua lasaia izan behar da, etenaldi posibleak ekidinez.²⁹

Berri txar bat ematerakoan, garrantzitsua da, igorle eta hartzaileen artean muga fisikoak ekiditea.²⁸ Horrekin gaixoari hurbiltasun sentsazio handiagoa ematea lortuko dugu.

Protokoloak

Aztertutako zenbait artikuluk informazioa emateko eta ondorengo maneiu emozionala aurrera eramateko orientabideak eskaintzen dituzte.

Alde batetik, berri txar bati buruz informatzeko jarraitu behar diren pausuetako batzuk deskribatzen dira. Esan bezala, informazio guztia bat batean ez da eman behar, hau emateko hitzak kontu handiz aukeratuz.¹³⁻²³⁻²⁷⁻²⁸⁻²⁹ Artikulu batean aipatzen den bezala, diagnostikoaren orduan minbizi hitza erabiltzeak, pazienteengan shock egoera sortu zuen eta hau entzun bezain laster ideia honetan besterik ezin ziren zentratu. Hau, marko teorikoan aipatutako *attentional narrowing hypothesis* – arekin (atentzioaren estutze hipotesia) azaldu daiteke.⁵ Hipotesi honetan, berri txar bat jasotzerakoan sortzen den asaldura emozionalak, pazientearen atentzioa hartzen duela azaltzen da. Hau ia bere osotasunean berri txarrera zuzendu egiten da eta, beraz, bigarren mailako informazioaren ezaugarriak galtzen dituzte.⁵ Arrazoi horrengatik, momentuan informazio gehiegi ez ematea gomendatzen da.¹³⁻²³⁻²⁸

Ikertutako artikuluetan aipatutako pausu hauek barneratzen dituzten hainbat gida aipatzen dira:

SPIKES protokoloa Buckman onkologo Kanadarrak diseinatutako berri txarrak emateko gida bat da. Hau progresiboki betetzen joan behar diren sei etapez osatuta dago.²³ Protokolo honen lehenengo puntua prestakuntzan oinarritzen da (Setting). Pausu honetan ingurunearen prestaketa aurrera eraman behar da (lasaia, segurua, eroso ...). Bigarren puntua pazientearen egoeraren pertzepzioan zentratuta dago (Perception). Pausu honetan honen egoera eta honi buruzko jakintza aztertuko da. Hirugarren pausuan gaixoari zer jakin nahi duen galdetzeraz gonbidatzen zaio (Inviting), horrek honen kezka eta interesa ezagutzeko aukera emango du. Laugarren puntua jakintzaren puntua da (Knowledge), non berri txar bat emango zaiola iragarriko zaion, denbora txiki bat utziko zaion egoerara prestatzeko eta azkenik berria transmitituko den. Hurrengo pausua enpatia da (Empathy), non pazientearen erantzuna aztertu eta hau ulertzen saiatzen den, enpatia eta entzute aktiboa erabiliz. Azken puntua laburpena eta etorkizunerako planak egitea da (Strategy and summary) (7. Eranskina).²⁴⁻²⁸

Beste alde batetik, **ABCDE** metodoa daukagu, honetan, aipatutako puntu guztiak ere barneratzen dira.²³ Honen barnean bost puntu aurkitu ditzakegu: ingurunearen prestaketa, zenbat dakien eta zenbat jakin nahi duen aztertzea, era egokian komunikatzea, pazientearen erreakzioa ulertzea eta bere emozioak onartzea.²⁴ (8. Eranskina) Beraz, metodo honek berri txarren komunikazioaren bi atal garrantzitsu era sinple batean barneratzen ditu: informazioaren transmisio egokia eta gaixoaren emozioen maneia.

Azkenik, **Almanzaren 10 orientazio puntuak** ditugu. Metodo hau osatuagoa da, lehenik pazientearekin erlazio bat ezartzea eskatzen duelako (9. Eranskina). Beraz, esan dezakegu, metodo honetan berri txarren transmisioa prozesu bat bezala gehiago ulertzen dela. Orientazio puntu hauen prestakuntza fasean historia klinikoa ezagutzea beharrezkoa da. Hau da, gaixoa bere patologiez eta sintomez gain honen egoera eta ezaugarri pertsonalak ezagutzea. Gainera, hau ezik familia eta profesionala ere integratzen ditu, familia zaintzea eta langileen sentimenduak lantzea proposatuz.²⁴ Beraz, esan bezala, Almanzaren 10 orientazio puntuek, informatzea ekintza prozesu bat bezala ulertzen dute, izan ere, alde batetik partaide guztien egoera emozionala kontrolatzeko irizpideak eskaintzen ditu bai informazioa eman aurretik, bitartean eta ondoren, mezua ematearen prozesuan soilik ez oinarrituz.

Informatze prozesuaren zailtasunak

Jadanik aipatu dugun bezala, berri txar bati buruz informazioa ematea eta pazienteen alderdi emozionala lantzea profesionalentzat ez da batere erraza. Hauek askotan ez dira egoera hauei aurre egiteko prestatuta sentitzen eta konfiantza falta adierazten dute. Stayt et al-ek erizainek arlo honetan **entrenamendu falta** daukatela dio. Langileek pazienteekin gai zailei buruz hitz egiten haien kabuz esperientziarekin ikasi behar dute, denborarekin estrategia pertsonalak sortuz.²¹⁻²² Horregatik, informatzea erizaintza zainketen artean sartzen den arren, deseroso sentitzen dira ekintza hau aurrera eramaterakoan.³²

Horrez gain, Blomberg et al-en artikuluan askotan erizainak hurbiltasuna adieraztera bortxatuak sentitzen direla aipatu egiten da.³³ Heziketaz gain, artikuluek dioten arabera hurbiltasun hori adierazteko **esperientzia** beharrezkoa da.³³⁻³⁴ Arrazoi honengatik, profesional asko deseroso sentitu daitezke eta ondorioz, limiteak ezartzen dituzte pazientearen egoeran oso inplikatuak ez egoteko.³³ Beraz, begi bistakoa da eskarmentu faltak erizainei zailtasunak sortzen dizkiela.¹⁸ Esperientzia gutxiagokoei pazienteek berri txarra behin jaso eta gero hauekin hitz egitea zailagoa iruditu zitzaion (6.7-ko puntuazioa 10-eko eskala batean non 10-a zailtasun handiena den).¹⁸ Elkarrizketa hauetan eman zitezkeen traben artean gaixoaren familiarekin hitz egitea (aurretiazko nahiei buruz adibidez) eta medikuekin batera familiarrekin zainketa aringarriei buruz hitz egitea aurkitzen ziren .

Gainera, Malloy et al-ek bere ikerketan aipatu egiten duen bezala, 20 urte baino gutxiagoko esperientziadun erizainei arazo gehiago sortu zien beste kultura eta erlijioetako pazienteekin lan egitea (5.2 puntu 10etik). Aldi berean, 30 urte baino gutxiagoko esperientzia daukatenek trabak izan zituzten erlijioarekin zer ikusia daukaten gaiei buruz hitz egiteko.¹⁸ Bestalde, eskarmentu gehiago izanda zailtasunak agertzen diren esparruak ere aldatu egiten dira; trebakuntza gehiagoko erizainei elkarrizketetan isiltasuna gordetzea eta pazienteen emozio zailak entzutea gehiago kostatu zitzaion.¹⁸ Azkenik, erizain guztiek paziente eta senideengan itxaropenik kendu gabe berri txar bati buruz informatzea zaila aurkitu zuten.³²

Beste alde batetik, pazientea ezagutzea eta honekin **erlazio terapeutiko** bat ezartzea lagungarria izan daiteke berri txarrei buruz hitz egiteko.¹³ Esan beharra dago, konfiantzan oinarritutako harremanek komunikazioa errazten dutela hau irekia eta zintzoa izaten ahalbidetuz.¹³ Gainera, enpatiak paziente eta profesionalaren arteko lotura sendotu dezake. Honek, komunikazio momentuan ingurune erlaxatuago bat sortzen lagundu dezake. Hala ere, horrelako erlazioak ezartzeak bere alde txarra dauka, izan ere, Stayt-ek bere artikuluan profesionalak pazienteekin gero eta harreman intimoagoak izan, orduan eta ahultasun handiagoa daukatela aipatzen du.³²

Pazienteen hainbat faktorek ere komunikazioa zailagoa egin dezakete. Horietako bat **gaixoen adina** da. Ikusi egin da, erizainei gaixo gazteagoei berri txarrak ematea zailagoa iruditzen zaiela helduagoei baino. Horrela, gaztetasunak zainketa aringarriak bezalako gaiei buruz hitz egitea edo berri txarrak ematea lan konplexua bihurtzen du.¹³

Aurretiaz aipatu dugun bezala, **familia** oso kontuan izan behar da.²⁵⁻²⁹ Hau, hala ere, zailtasunen beste iturri bat izan daiteke. Askotan, familia kideek pazienteari informazioa modu zehatz batean ematea nahi dute, beste hitz batzuk erabiliz edo pronostikoari buruz ez informatuz adibidez. Beste alde batetik, batzuetan informazioari eman nahi ez diote.²⁷⁻²⁹ Beraz, hauek gaixoarentzat sostengu emozional handia izan daitezkeen bitartean, komunikazio prozesua oztopatu dezakete ere.¹⁸⁻²¹⁻²⁷ Familiak informazioa partzialki ematea edo inolako daturik ez ematea nahi dutenean, profesionalak pazienteari zainketa holistiko bat emateko zailtasunak izan ditzakete.³² Honek erizainei hainbat arazo suposatu ahal dakieke, izan ere, beharrezkoa da familien konfiantza izatea haien zainketak aurrera eramateko.³² Hala ere, Kendall-ek bere ikerketan erizainek informatu gabeko pazienteek egia jakiteko eskubidea zeukatela uste zutela adierazten du, informazio hau betiere pazientearen beharretara egokitua egon behar dela kontuan izanez. Bestalde, hauek familiaren edo medikuaren kontra jokatzeko botere gabe sentitzen ziren.²⁷ Beraz, momentu hauetan baliteke erizainek nola jokatzeko ez jakitea eta jokabide bata edo bestea aurrera eramateko, egoeraren balorazio sakon bat egin behar izatea.

Erizainaren rola

Erizaintzaren rola egoera hauetan ez da asko aztertu eta informazio falta handia dago. Haien ekarpena oso garrantzitsua da baina ez dago ikertua.²⁸⁻³² Ikusi egin denez, langile hauen rola atal handi bat pazienteen emozioen lanketa da.¹³⁻²⁵ Berria eman aurretik, bitartean eta ondoren pazientearen beharrak eta emozioak aztertuko dituzte, honi hauek kudeatzen laguntzeko. Gaixoen ustetan, erizainak komunikatzaile oso onak, jakituria handikoak, profesionalak eta pazienteak ulertzen dutenak dira.²³ Beraz, begi bistakoa da langile hauen sostengu rola oso nabaria dela.

Pazientearen sostengu bezala jarduteaz gain, zaintzaileena edo familiarena ere jardun behar dute, esan bezala hauek gaixoaren zainketarako berebizikoak baitira. Beraz, erizainaren beste lanetako bat familia kideen egoera zaintzea ere bada.¹⁸⁻²⁵⁻²⁷ Familiarrekin komunikazio irekia izatea oso garrantzitsua da, izan ere, hauek pazienteari informazioa ez emateko nahia izatekotan, egoeraren balorazioa egitea eta hau kudeatzea erizainaren lana izango litzateke.²⁷ Hau egiterakoan abokatu bezala eta dauzkaten arazoetan bitartekari bezala jarduten dute.¹⁸⁻²⁵⁻²⁸

Mendes et al-ek erizainaren presentzia berri txarrak ematean oso garrantzitsua bezala definitzen du, sortu den harreman terapeutikoaren ondorioz pazientearengan efektu onuragarriak lortzen dituelarik.²⁴⁻²⁸ Hala ere, sostengu hau aurrera eramatea zaila izan daiteke. Informazioa transmititzeko protokoloek maneiu emozionala aurrera eramateko pausuak barneratzen dituzten arren, helburu hau betetzeko emozioak lantzeko gida espezifikoak erabili daitezke.

EMOZIOEN MANEIOA

Pazienteak

Pazienteen emozioak lantzea, berria egoki informatzea bezain garrantzitsua da. Esan bezala, berri txarra transmititzeko protokolo guztiek emozioak lantzeko irizpideak ere barneratzen dituzte. Hala ere, helburu hau lantzeko gida espezifikoak ere badaude. Hauekin, berria jaso aurretik eta ondoren gaixoari sentitzen ari dena kudeatzen lagunduko zaio.

Alde batetik, **NURSE metodoa**, erabilgarria da pazienteari bere emozioak onarrarazteko. Gida hau erabiliz, hauen azterketa bat eramango da. Horretarako, emozioei izena ematea aholkatzen da, horrela, pazienteak sentitzen duenaren identifikazioa eta onarpena lortuz. Ondoren, adierazitako sentimenduak ulertu behar dira gaixoari sostengua eta errespetua eskaintzen diogularik. Horretarako, empatia erabiliko da.²⁸ Erizain asko hori lortzeko, egoera pazientearen ikuspegitik ulertzen saiatzen dira honen azalean jarri.¹³ Horrela, gaixoaren erantzun eta emozioak aztertzeko eta hauen arabera jokatzeko erraztasun gehiago izango dute.²⁹ Beste alde batetik, pazienteei sostengua eskaintzeko, garrantzitsua da gaixoari osasun taldearen eskuragarritasuna adieraztea.²⁹ Honek pazientearengan laguntza edo babes sententzia sor dezake.

Mendes et al-ek, bestalde, **SPIKES metodoa** antsietatea maneiatzeko gida bezala sailkatzen du, honetan emozioak ere lantzen baitira. Honen 5. Etan NURSE metodoan aurrera eramaten diren ekintzak barneratu daitezke, izan ere, pazientearen erantzuna aztertu, ulertu, empatia erakutsi eta entzute aktiboaren bidez emozioak lantzen dira.²⁸

Gogoratu behar dugu betiere pazienteari ez zaizkiola ideia edo itxaropen okerrak eman behar. Horretarako, gaixoek haien egoera ongi ulertzen dutela ziurtatu behar dira. Hori lortzeko profesional askok, ulermen falta dagoela antzematen dutenean, hauei galderak egitera bultzatzen die.²⁹ Egoera ongi ulertzen dutenean, helburu errealista posibleak aztertu egingo dira. Hau izango da pazienteek haien familia kideen laguntzaz aurre egite estrategiak martxan jartzen dituzten momentua. Clayton et al-ek gaixoarekin egoerari aurre egiteko modurik egokienari buruz hitz egitea gomendatzen dute.²⁹ Pausu guzti hauek, haien egoera emozionala hobetzeko onuragarria izan daitezke, izan ere, gogoratu behar da ezjakintasunak sufrimendua sortzen duela.¹³⁻²³⁻²⁷⁻²⁸ Gainera, modu honetan, gaizki ulertzeak eta hauek dakartzaten ondorio negatiboak ekidingo ditugu, hauek pazienteari egiazkoak ez diren itxaropenak eman ahal baitizkie.³⁰

Azaldutako gida eta gomendio hauek informazioa transmititzeko protokoloekin bateratuz, pazienteari eskainiko zaizkion zainketak ikuspegi holistikoago batetik ematea lortuko da. Hala ere, kontuan izan behar da pertsona eta egoera bakoitza ezberdina dela eta beraz, irizpide hauek ere era desberdinean erabili behar direla, paziente guztientzat formula berdina balio ez duelarik.

Profesionalak

Ikusi den bezala, berri txarren komunikazioak pazientean gain, profesionalengan ere inpaktu handia dauka. Gai honi buruz hitz egiten duten artikulua dauden arren, egoera hauetan profesionalen emozioetan zentratzea nahiko joera berria da. Hala ere, egiaztatu da bai berri txarrak ematea eta bai familiari laguntzea estres iturria dela. Erizainek ingurune klinikoan sentimendu asko isilean gordetzen dituzte eta gainera, hauek metatzeko joera daukate.³² Horregatik, garrantzitsua da emozio hauek ongi kudeatzea. Aurkitutako artikuluetan honetarako hainbat estrategia eta gomendio deskribatzen dira.

Jakina da momentu hauetan pazientearen aldetik behar asko betearazi behar direla, profesionaleri egiten zaizkien galdera guztiei erantzuteko prest egon behar direlarik.²⁸ Honek langileengan presio handia sor dezake, urduritasuna areagotuz. Ondorioz, norberaren zainketak aurrera eramatea oso garrantzitsua da. Prestaketa estrategia hauek, profesionalen emozioak kontrolatzera lagundu dezakete.²² Hauek berria eman aurretik, bitartean eta ondoren erabiltzen dira. Hauen artean, lasaitzeko estrategiak, norberaren emozioak aztertzea, elkarrizketa alde aurretik prestatzea eta esperientzia prozesatzeko denbora hartzea egongo dira.²² Gainera, osasun taldearen kideen artean egoera komentatzeak ere, momentu hauei era egoki batean aurre egitea ahalbidetzen du, langileak bata bestea laguntzen dutelarik.²²⁻³³

Ikusi egin da, enpatia sustatzeak paziente-erizain erlazioa sendotu dezakeen arren eta erizainei satisfazio handiagoa ematen dien arren, emozionalki nekagarria dela.³² Horren ondorioz, erizain askok pazienteengandik aldenitu egiten dira haien buruak babesteko.³²⁻³³ Urruntze estrategia

hauen barnean, eguneroko beste ekintza batzuei lehentasuna ematea egongo litzateke adibidez.³³ Aldentze hori handiegia suertatzen denean paziente eta profesionalaren artean sortzen den erlazioa ez da egokia.³² Ondorioz, beste askok hurbiltasunaren eta aldentzearen arteko orekan oinarritutako estrategia bat erabiltzen dute, ia kasu guztietan bi estrategia hauen txandakatzea inkontzienteki eginez.³³

Ondorioak

Berri txarrak ematea konplexutasun handiko prozesua da. Informazio hau transmititzerako momentuan profesionalak hainbat aldagai kontuan izan eta menperatu behar ditu. Orain dela oso gutxi arte hauen transmisioa informazio emate momentura mugatzen zen, pazientearekin hau lantzen zuen profesional bakarretako bat medikua zelarik. Azken urteetan berri txarrak informatzea prozesu bat bezala ikusten hasia da, honetan beste hainbat profesional barneratzen direlarik. Halaber, oraindik ere eskuragarri dagoen informazioaren atal handi bat medikuei eta transmisio momentu horri zuzendua dago.

Fase hau bakarrik kontuan badaukagu, medikuak garrantzia gehien daukaten profesionalak izango dira, hauen konpetentzien artean berri txarrak eta diagnostikoak ematea baitago. Honek, hauek era independente batean lan egitea sor dezake, gainerakoak kontuan izan gabe. Modu berean, informazio transmisioa horrela ulertuta, askotan aurretiazko eta ondorengo balorazioa ez da praktikan jartzen. Horrelako egoerak ekiditea garrantzitsua da, pazientearen egoera emozionala landuko ez bailitzakeelako.

Eskuragarri dauzkagun datuetatik berri txarrak ematea oso prozesu konplexua dela ondoriozta daiteke, aldagai asko jokoan sartzen baitira. Kontuan izan behar da hauen transmisio prozesua, informazioa eman baino lehen hasten dela. Hasteko, prestaketa bat egin behar da berria eman aurretik. Prestaketa honetan, pazientearen egoeraren balorazio bat egin behar da (zer dakien eta zer jakin nahi duen, egoera emozionala, sostengu soziala ...). Hau, honekin kontaktua izango duten guztiok kontuan izan behar dute honen egoeraren irudi orokor bat izateko. Beraz, erizain laguntzaileek, erizainek, medikuek eta beste hainbat langilek gaixoaren egoera ezagutu behar dute. Balorazio hau aurrera eramaten ez denean, informazioa nola eta zein kantitatetan ematea berria transmitituko duen profesionalak erabakitzen du. Beraz, pazienteak jasotzen duen informazioa profesionalaren irizpidearen arabera aurrera eramaten da, batzuetan lehen aipatutako gaizki ulertzeak sortu daitezkeelarik. Gaizki ulertze hauek, aldi berean, gaixoaren sufrimendu emozionala sortuko dute, ezjakintasunak eta sortu daitezkeen nahasteek kezka, urduritasuna edo errumiazio erako pentsaerak handitu dezaketelarik.

Profesionalek pazientei aurretiazko balorazio hau ez burutzea eta informazioa transmititzerakoan hauek kontuan ez hartzea langileei sortzen zaien deserosotasun sentimenduaren ondorioz izan daiteke. Izan ere, hainbat artikuluk aipatzen duten bezala,

momentu hauetan jarduteko prestakuntzarik ez dago. Hauek erizainei deserosotasuna, estresa, urduritasuna ... bezalako sentimendu negatiboak sor diezaiakete. Langile batzuk aldentzea erabiltzen dute haien buruak berri txarren transmisioak dakartzan ondorio emozionaletatik babesteko. Hau, hurbiltasunaren estrategiarekin konbinatzen bada, profesionalen emozioak erregulatzeko estrategia interesgarria izango litzateke. Argi dago erizainek ere egoera jakinak momentu puntaletan jasateko ezintasuna izan dezaketela. Urruntze denbora hori egokia izango litzateke, haien burua prestatzeko erabiltzen badute eta aurre egite estrategiak martxan jartzen badituzte. Denboraldi horretan norberak dituen barne eta kanpo baliabideak erabiliko ditu eta era egokian aurre egingo dio, sentimenduak drainatzeko estrategiak martxan jarriz. Hala ere, askotan urruntze hori ez da denboraldi batekoa izaten, profesionalek egoera hauetan nola jokatzeko den ez dakitelako. Momentu hauek pazientearen emozioak txarto kudeatzeko beldurratik ekiditen badira, honi emozionalki garatzen ez diote lagunduko. Beraz, zainketek gaixoaren alderdi fisikoa zainduko dute baina ez dute hau bere osotasunean hartuko, egoera hauetan garrantzitsua den atala alde batera utziz. Gaur egun momentu hauetan jarduteko gidak, informazioa eta prestakuntza ematen ari den arren, oraindik ikasketa hutsune handi bat dagoela ikusi daiteke. Hutsune hori oinarritik betetzea berebizikoa da, formakuntzan ari diren profesionalei heziketa on bat emanez.

Behin hezkuntza jasota, erizainei errazagoa egingo litzaieke egoera hauei aurre egitea, kontuan izan behar baitugu, bai hasierako eta ondorengo balorazioetan eta bai transmisioan papera garrantzitsua daukatela. Horrela, alde batetik paziente eta familiarentzat sostengu emozional bezala jardutea eta, bestetik, medikuaren informazioa osatzea, dudak argitzea, etab aurrera eramango dute. Azken batean mediku eta pazientearen artean moderatzaile moduan jardun eta bien artean komunikazioa ahalbideratu eta erraztuko dute.

Erizainak, beraz, beharrezkoak diren profesionalak dira egoera hauetan. Artikulu askok aipatzen duten bezala, hau pazienteekin denbora gehien igarotzen duen langileetako bat da. Hala ere, honekin kontaktu jarraitua daukaten beste profesionalak ere beharrezkoak suertatzen dira, informazio asko bildu baitezakete. Honen adibidea erizain laguntzaileak dira, hauek ere pazientearekin denbora handia iragotzen duten profesionalak baitira. Horrela, berri txar bat transmititzerakoan talde lanean jardutea eta honetan kohesioa eta koordinazioa izatea oso onuragarria izan daiteke paziente eta profesionalentzat. Modu honetan, profesional guztiek daukaten informazioa bateratu egingo da eta, ondorioz, berri txarra era egokiago eta individualizatuago batean emango da. Pazientearen osasun egoera, soziala edo emozionala ezagutuz, profesionalentzat errazagoa izango da informazioaren transmisioa, izan ere, honek gaixoaren ikuspegi orokor bat izango du eta zein informazio, noiz eta nola emango diogun erabakitzen lagunduko dio. Gainera, honekin osasun taldearen kide guztiek mezu eta jarrera bateratu bat ematea lortu egingo da. Honek gaixoari asko lagundu egingo dio bere emozioak kudeatzeko momentuan, langile guztiek helburu berdinerantz jotzera lagunduko baitiote.

Berria eman ondoren, momentu honetan parte hartu duten profesionalek gainerako langileei elkarrizketa nola joan den, zein informazio eman den, pazientearen erantzuna zein izan den ... komunikatzen ez badiete, paziente horrekin lan egitea zailagoa egiten da. Erizainei, konkretuki, informazio hau ez izatea asko kaltetzen die. Gai honi buruz hitz egiteak sor dezakeen urduritasun eta beldur sentimenduez gain, ezjakintasunak edo zein informaziori buruz hitz egin dezakegun ez jakiteak haien zainketak asko mugatu ditzake. Erizainak pazientearen egoera era egoki batean lantzen ez jakiteak, honen egoera emozionalan eragin dezake, honek era zuzen batean gaixoaren sentimenduetan eragiten baitu, honen sostengu bezala lan eginez.

